

ESKOLA SEGREGAZIOA

Begirada zabal batez, eskola segregazioaren harresiak hausten

Zeri buruz dihardugu eskola segregazioaz ari garenean?

Eskola segregazioaz dihardugunean, ikasleak jatorri, maila sozioekonomiko edo ezaugarri jakin batzuen arabera eskoletan banatzeaz ari gara.

Zer nolako segregazio motak daude?

sexua-generoa

hizkuntza aniztasuna

erlijioa

jatorria

maila sozioekonomikoa

aniztasun funtzionala

BALIABIDE FALTA OSO ERABAKIAGARRIA DA

Begirada hiru gakotan jarri nahi dugu

Ikuspuntu soziolinguistikoa.

Euskararen eta atzeritarren inguruan sortu den ideia kaltegarria da. Eskolatik kanpo euskara lantzea klabea da, eta, ez dakitenen kasuan, orientazio eta aurrerapen falta erraz nabarmentzen dira. Aldi berean, gizartearen dauden beste hizkuntzak kontuan hartzea ere positiboa eta aberasgarria da.

Ikuspuntu soziala.

Jatorri desberdinetako ikasleak mota bereko zentroetara bideratzen dira. Horrek “getoak” sortzeko arriskua eragiten du. Integrazio programak egonda, askoz ere funtzionalagoak izan daitezke eta zentro ezberdinen arteko lana modu koordinatuan egin daiteke. Helburua da errealitate desberdinei egokitzea eta hezkuntza-sistema benetan inklusiboa izatea.

Ikuspuntu pedagogikoa.

Hautzaroan errealitate desberdinetako pertsonak ez ezagutzeak inpaktu handia du garapenean: beldurrak, aurreiritziak eta distantziak sortzen ditu. Horren ondorioz, gizarte anitza askotan arrotza bihurtzen da eta elkarbizitza zaildu egiten da. EGKren ikuspegi pedagogikotik, kontaktu goiztiarra eta gidatua funtsezkoaK dira; horrela, haur eta gazteek errespetua, enpatia eta bizikidetza trebetasunak modu naturalean garatzen dituzte.

IRAUNKORRAK DIREN PROPOSAMEN ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Bizikidetza ez da soilik espazio berak partekatzea, baizik eta ingurune seguruetan elkarrekin bizitzea.

Euskara ikuspuntu inklusibotik landu.

Inklusioa lantzea ikuspuntu kritikotik, ez estetikutik.

Bizikidetza egunero landu beharko litzateke eta haurtzarotik hasi.

Eskolak gure gizartearen barruan uharteak badira ere, aldi berean bere errealitatetik eta testuingurutik elikatzen dira.



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA DUA
ESKUBEN DUA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

INFO +